

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Hasierako onespena ematea landako taxi zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskalari

Udalbatzak, 2024ko abenduaren 9an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Landako taxi zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskala ezartzea.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erabaki hau behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioren bat badago, beste erabaki bat hartuko da horren inguruan.

Argitara ematen da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruña Oka, 2024ko abenduaren 10a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ